

Keu Agirretxeak, Etsaiak eta Psychophony taldeetako gitarra joleak, musika instrumentaleko diskoa kaleratu berri du. **Uek** izenpean, doinu progresiboak eta landuak jorratu ditu bere estreinako lanean. Norton (EH Sukarra), Paul (Etsaiak), Juanito (Ekon) eta beste lagun batzuek parte hartu dute diskoan. **Gaztelupeko Hotsak** disketxearen eskutik iritsi zaigu Ondarroakoaren lana.

mikel lizarralde

■ **Etsaiak eta Psychophony taldeetan landutako musika gogorra alde batera utzi duzu Uek proiektuan. Urteetan etxean egindako lana atera nahi izan duzu?**

Bai; urte hauetan bai Etsaiakentzat, bai Psychophonyrentzat egin ditut abestiak, baina horietaz gain, beste kantu mordoa joan naiz biltzen; beste bi proiektuetan sartzen ez zirenak. Kantu asko dira, eta kajoi batean betiko gordeta egon beharrean, horiekin zerbait egin nezakeela pentsatu dut. Kantu guztien artean forma gehien hartuta zutenak aukeratu ditut, eta grabatu egin ditut. Lehenago lagun batzuei bidali nizkien kasete batzuk, eta gero, horiek izan dira diskoan parte hartu dutenak.

■ **Kantuak etxean bertan grabatuak zenituen gitarra batekin. Forma handia eman behar izan diezu diskoan sartzeko?**

Bai, nik neure kasa grabatu nituen kantuak gitarrarekin, lau pistako batean. Gero, abestiak nola jantzi nahi nituen pentsatzen hasi nintzen, eta hainbat ideia bururatu zitzaizkidan: biolin bat

sartzea hemen, koru bat han, eta abar. Horregatik deitu nituen hainbat musikari; ez nuelako nahi gitarra hutseko grabazioa izatea.

■ **Ahotsik ez duzu sartu nahi izan?**

Ez, ez dut ikusi ahotsak sartzeko hutsunerik, eta, gainera, ez dut neure burua abesten ikusi. Nahiko garbi izan dut musika hutsa izan behar zuela.

■ **Abesti horiek ez dute tokirik izan zure bi taldeetan?**

Abesti bat egiteko orduan, igarri egiten duzu non joan daitekeen eta non ez. Etsaiak, adibidez, asko aldatu da urteetan, baina segitzen du bide bat, eta Psychophonyrekin gauza bera gertatzen da. Horregatik, abesti bat egitean, abesti horrek esaten du non joan behar duen. Gainera, musika aldetik musika mota

ezberdinak gustatzen zaizkit, eta, entzun ere, denetarik egiten dut. Hori diskoan ere igartzen dela uste dut.

■ **Nola erantzun dezakete Etsaiak edo Psychophonyren jarraitzaileek Ueken aurrean?**

Ni Etsaiakeko kidea izateak ez du esan nahi egiten dudanak Etsaiaken antza izan behar duenik. Uek beste gauza bat; ez dauka zerikusirik. Hala ere, beharbada, Etsaiaken jarraitzaileak gerturatu ahal dira proiektu honetara jakiteko zer den.

■ **Diskoko kantuak hainbat alde ukitzen dituzu, baina badu diskoak joera nahiko progresiboa. Kantuen garapenak, gitarren erabilerak eta tratamenduak horretara eramaten zaituzte.**

Bai, hala da. Baina ez da aurreikusitako kontu bat izan. Abesti hauek urteetan egin ditut, eta horrela joan dira sortzen. Gainera, konponketek ere ildo progresibo hori bultzatzen dute, ez direlako kantu konbentzionalak.

■ **Gustatzen zaizkizu Marillion eta halako talde progresiboak?**

Bai, diskoak izan dezake halakoen ukitu bat. Baina rocka oso modu zabalean ikusten dut, eta berdin-berdin en-

tzuten dut death metal basatia, Jimi Hendrix edo Rush eta antzeko taldeak. Ez naiz joan musika mota jakin bat egitera.

■ **Ildo bat segitu arren, CDan jazz-rocka (Momentu bakarra), flamenkoa (Intuicion-Batetik bestera), new agea (Arrautzak, globuk eta barrik) eta gitarra heavyak (12-M) entzun daitezke. Gustatzen zaizunaren isla dira?**

Emanaldi gutxi eta bereziak

Kontzertu gutxi batzuk izango dira, baina bereziak eta politikak izatea nahi du Keuk. Hori dela eta, emanaldiak ondo prestatu ditu, maitasun handiz. Gaur izango da lehenengoa, Bilboko Kafe Antzokian, eta datozen asteotan beste lau-bost egiteko asmoa agertu du Etsaiakeko gitarra joleak.

Gaurko emanaldia Ondarroako bikote gazte batek irekiko du. «Orain dela urte pare bat Zain izeneko proiektua jarri nuen abian, eta maketa bat ere atera nuen. Orain gazte hauek kantu haiek hartu dituzte, eta euren erara jotzen dituzte». Sarreraren ondoren hasiko da Uek-en emanaldia, eta Keuren batera Juanito (Ekon), Mikel (Etsaiak) eta Norton (EH Sukarra-Lorelei) ariko dira. Horretaz gain, Antzerki Imajinarioa taldeak gorputz adierazpenak egingo ditu, eta bideo irudiak ere proiektatuko dituzte. «Lagun gehiago ere han izango dira laguntzen: Toki, Jon Kirru, Afrika... Disko osoa eta beste kantu pare bat joko dugu, eta antzerkiarekin eta irudiekin nahastuko dugu». Amaitzeko, Tokik diskoak jarriko ditu.

Nik garai ezberdinak pasatu ditut. Rocka entzun dut, heavya... eta gaur egun ere denetik entzuten ditut. Adibidez, 12-N-n igartzen da nire zaletasun heavya. Eta new agea ere entzun izan dut, nahiz eta ez daukadan material asko.

■ **Diskoko azken abestia, Duff Ka Tuff, apur bat aldentzen da diskoko soinu orokorretik. Programazioak eta sanplerrak sartu dituzu. Bide berri bat ireki nahi izan duzu?**

Ezberdina da abesti hori, baina uste dut segitzen duela diskoaren ildoak. Zerbait teknologikoa edo moderno egin nahi nuen, baina eskuetatik ihes egin gabe. Lasaitasuna eta intentsitatea nahastu nahi nituen, giro bat sortu.

■ **Piano, bateria, baxu eta beste tresna batzuekin jantzi dituzu abestiak, baina orokorrean, gitarren diskoa egin duzu. Zeintzuk dira zure gitarra jole gus-tukoenak?**

Rush taldeko Alex Lifeson eta Jimi Hendrix ditut aldarean, baina beste asko ere badira; Pat Metheny adibidez. Eta Euskal Herrian ere gitarra jole batzuk gustatzen zaizkit: Fran Iturbe, Aitor Gorosabel, Batiz... asko daude gauza politikak egiten.

■ **Diskoan hainbat lagunek parte hartu dute. Zergatik aukeratu dituzu?**

Urte askotatik ezagutzen ditut, eta askotan kontzertuak elkarrekin egin ditugu. Eta oraingoan aukera izan dut horiekin jotzeko eta grabatzeko. Ezagutzen nituen, eta proposatu nienean, oso jarrera polita erakutsi zuten. Eta grabatzen ere primeran pasatu dugu, ez dugu-lako inolako presiorik izan, eta bakoitzak bere ikuspuntua gehitu diolako proiektuari.

■ **Segida izango du Uek-ek?**

Oraingoz, dagoen lekuan geldituko da proiektua. Diskoa grabatu dugu, eta zuzeneko emanaldi batzuk egingo ditugu. Kontu askotan nago sartuta, eta horrek ere mugatu egiten nau. Etsaiakekin kontzertuak ditut, eta Psychophonyrekin ere diskoa grabatu behar dugu. Baina, beno, kontzertu batzuk egingo ditugu Uek-ekin, eta horretan nago orain.



«Diskoko kantuak ez dira konbentzionalak»